

1991ko urtarrilak 12

“Bizitza gaitz psikiko estrainioa da, irudipen fantastikoaren ondorio patologikoa, uste huts eta sineste bilakatutako huts hutsal engainagarri eta gaiztoa, besterik ezer ez. Geure aldetik, ezjakintasuna eta handiustea erakusten duen gaitza gainera. Bizitza ezertarako balio ez, ezertarako biderik zabaltzen ez duen arazo konponezin eta ankerra da, geuk geure buru gaixo eta eroari planteatua. Bizitza, hutsaren perfekzioa izorratzen duen konkorrak nazkagarria da, noiznahi ere oso aise deuseztu dezakeguna.”

* * *

Ostiral eta larunbat gauetan, festa egunetan, kalera irten eta kalean parranda egitea sekulako borroka da. Arauak ezagutzea komeni da, egoerari dagokion jokaera egokiena asmatu eta horrela “ondo pasatzeko”, horixe baita joko honetako irabazleen saririk preziatuena. Ni neu oso jokalaririk txarra izan naiz beti –joko honetarako bezala beste askotarako ere–, baina oso ikuskari eder eta interesgarria iruditu izan zait beti, bestalde. Jokoz kanpo gelditu eta jokalariren trikimailuak begiratzea gustatzen zait, nola eskatzen dituzten edariak, nola pizten dituzten zigarroak, nola begiratzen dioten elkarri berriketan ari diren bitartean, nola ateratzen duten dirua sakelatik tabernako zerbitzariari ordaintzerakoan...

Oso ederra da jokalaririk onenei erreparatzea, beren teknika fina eta beren lasaitasuna eta tenplea mirestea, egoera zailei aurre egiteko duten trebetasun sinesgaitza. Neure antzeko jokalaririk apal eta kaxkarrenei errukizko begiradak eskaintzen dizkiet, eta elkartasuna adierazteko gogoak sentitzen ditut, saiatzen segi dezaten adore emateko gogoa, edo aholku zintzoa ematekoa bestela: joko hau utzi eta bizitzak eskaintzen dituen beste joko ugarietako bateren batean bila dezatela honetan ezin aurkitu dutena.

Ni neu etsita nago. Nahiz eta askotan gelditu jokoz kanpo, inguruko jokalariren mugimenduei begira, ez dut ikasten, ez dut inondik ere ondo jokatzeko asmatzen.

1991ko urtarrilak 22

“Lapurretan harrapatu ninduten. Lotsatu eta gorritu egin nintzen. ‘Hara’, esan nien, ‘lapurra nauzue, aitortzen dut, baina ez naiz lotsagabea: ikus ezazue nola lotsatzen naizen’.” Ez zait horrelakorik gertatu, baina ez litzateke harritzekoa. Horrelakoxea naiz ni. Lapurra, lotsatia, zintzoa... Lapiko samarra!

1991ko urtarrilak 29

Futboleant jokatzeko nahiko txarra naiz. Baina ez nintzateke hain txarra izango miopea ez banintz; ez, ordea, begietatik miope (hori lentila pare batekin konpon nezake), burutik baizik. Horregetan egiten dut huts. Asmatzen dut baloia oinekin erabiltzen, baita buruz jotzen ere, asmatzen dut baloiaren atzetik korrika egiten, baloia lortzeko borrokatzen. Baina ez dakit zer egin baloiarekin, ez dut asmatzen zertan den jokoa oro har. Txikian moldatzen naiz ondo, baina handian galdu egiten naiz. Jokoa ikuspegia da falta zaidana. Eta –hor dago gakoa, horixe da kontua, jakina– horrelakoxea naiz, futboletik landa, bizimoduan ere oro har. Miope hutsa; ez, ordea, begietatik miope bakarrik (hori betaurreko pare batekin konpontzen dut gutxi gorabehera), burutik baizik.

* * *

Ni beti galtzailearen alde isurtzen naiz, nahi ez badut ere, halakoxea baitut joera. Baina irabazlearen kontra jotzeko arima falta zait ordea. Eta irabazlearen porrotak penatu ere egiten nau. Horrela ezin da.

1991ko martxoak 9

Adiskide bati entzuna: “Ez dut komunista izan nahi. Eta ezta antikomunista ere. Horretarako azalpenak eman behar dira. Pobrea naiz, besterik gabe.”

1991ko martxoak 28

Kafetegi bateko zerbitzariak igande eguarte batean lurretik jasotako papera: “Taberna batetik bota naute ixteko ordua zutelako. Beste taberna batera joan naiz, edan eta egotera. Botila bat hautsi dut, barre egin diet hango bezero txoropitoei, barre egin diot zerbitzariari, edalontzi bat hautsi dut, zerbitzariaren irainei erantzun eta bota egin naute handik ere. Kanean, berriz, zaborra biltzeko kutxak iraultzen xahutu ditut indarrak. Aparkatutako auto batzuen gainetik ibili naiz. Denda bateko erakusleihoa ostikoz jo eta txikitu egin dut. Goizetik jaikita zeuden hiritar zintzoak amorrarazi ditut gero, libre eta harro sentituz... Baina ez nago konforme hala ere. Zerbait geratu da egin gabe. Ez dut neure barrua irauli, ez dut nahi eta behar nuen guztia adierazi. Beti falta izaten da zerbait horrelakoetan, eta gaur ere, parranda guztietan bezalaxe, egunaren argia izango da azken garailea.”

1991ko maiatzak 1

Kanturik maiteena ahaztutako huraxe izaten da beti, inork ere gogoratzen ez zuen kantu txiki eta apal hura, ezerezaren doinutik irten gabe aritzen zena, ezerezaren hutsean luzeen sufritutakoa.

* * *

Esadazue non, noiz eta nola, eta hantxe izango nauzue. Esadazue zer jantzi eta zer eraman, eta zer egin bertara heldutakoan. Esadazue eta obedituko dut. Mutil zintzoa naiz, barrutik bakarrik naiz herrena, bihurria, iluna, gaiztoa.

1991ko maiatzak 6

Ez naiz beti kale erdian erortzen ari, baina kale erdian erortzen ari den gizon bat naiz beti.

1991ko maiatzak 16

Amodiozko gogoeta

Kamioi txiki horrek daramatzen butano bonbonetako baten barruko gasak berotuko du zure dutxako ura.

1991ko ekainak 16

Garraio bereziak

Garraio bereziak oso interesgarriak iruditu izan zaizkit beti. Izan ere, atoidun kamioirik handien neurriak gainditzen dituzten makina, pieza, material edota edonolako ekai edo gauzakiak garraiatzen dituzten kamioi handi eta indartsuak ikusgarriak dira benetan. Kamioiaren aurretik zein atzealdetik auto bana joan ohi da garraio berezi horietako bat egiten denean, argi gorriak piztuta, inguruko txoferrak zamaren neurri handiegiak sor dezakeen arriskuaz oharturik izan daitezten.

Garraio bereziak oso adierazkorrak iruditzen zaizkit. Nik uste dut eskultore modernoan lanen antzekoak direla, baina perfektuagoak beharbada, orijinal eta biribilagoak gehienetan, hori garraiatzen den gauzakiaren gorabeheran badago ere.

Nik ezin dut azaldu horrelako garraio bat ikustean sentitzen dudana. Atoidun kamioiekiko sentitzen dudana lilura areagotu egiten da garraio berezien ikusmenarekin.

Ez dakit zeren ordezko zer ote den benetan kamioiei begira bilatzen dudana. Bakarrik dakit hotzikarak sentiarazten dizkidatela, urduritu eta dardarazi egiten nautela, eta barrua arazo oro ezabatzen duen poz orokor batez betetzen.

Solasaldi ooren gaisetiko indar arin eta magiko bat sentiarazten dit garraio berezi bat ikusteak, bizitza eskura jarriko balitzait bezala, neure mende.

Neure iritzia azaldu beharrean, garraio berezi bat erakutsi nahiko nuke nik beti, mantso-mantso aurrera egiten: “Hor duzue nik sentitzen dudana, nik pentsatzen dudana, nik adieraz dezakedana.”

Egia da, bai, ez dakidala zergatik, ez dudala oso ondo ulertzen motiboa. Baina jakina da ez artistak ez artezaleak ezin dezakeela azaldu artearen lilura. Edertasuna eder zergatik den ere ezin jakin daitekeen bezalaxe.

Garraio bereziak ezin dira esplikatatu, ezin dira analizatu. Garraio bereziak barne-muinetan sentitzen dira.

1991ko uztailak 13

Gazte mordo batek, kalean, uniformerik gabeko bost polizia nola iraintzen zituzten ikusi dut, gaztetxea itxiarazi dutelako, goizeko bostak jo baino pixka bat lehenxeago. Polizietako bat gazteekin hitz egiten saiatu da, baina gazteek polizia inguratu eta are gogorrago iraindu dute. Ez dira joka hasi hala ere.

Nola izan daiteke polizia? Zein burutan sartzen da horretaraino iristea? Nola pentsa daiteke gazte horiek ez dutela arrazoirik, eta ondo dagoela goizeko bostetan taberna guztiak eta gaztetxeak itxiaraztea, gazteei aukera horiek kentzea? Nola sentitu daiteke bat horretarako eskubidearen jabe? Zertan oinarri dezakete “arrazoia dutelako” uste funtsik gabekoa? Zein fede itsu eta zorabiagarrik bultza ditzake gazte horiek baino gehiago direla sentitzera?

Neu ere helduko ote naiz hori guztia “ulertzera”? A zer ikara!

1991ko azaroak 16

Gosaltzen ari naizela, batzuetan, katiluko kafesnea itsaso zabala iruditzen zait, eta bertan murgildu nahi izaten dut. Mundua geldiarazten saiatzeko modu bat besterik ez da. Baina horrek ez du ezertarako balio. Kafesnea ez da itsasoa. Mundua ezin da sukalde batetik geldiarazi. Atsedean hartzeko aitzakiak besterik ez dira. Mundu oso bat gorde daiteke hala ere une horietan, bestela ihes egingo ligukeena.

1991ko azaroak 17

Izuaren gailurrik sakonenean

Fabrika zahar abandonatu bateko hoditeriaren azpian, giltza herdoildu bat dago, inork bira emango balio mundua geldiarazi egingo lukeena. Fabrika horren bila nabil eguneroko ibilera noragalduetan, bilaketa hori dut zeregin, ogibide eta miseria, amets eta amesgaizto, babes eta mehatxu, bilaketa hori da nire bizitza. Bakardadearen morturik hustasunez beteenean ezkutaturik izan behar du fabrika horrek, ahanzturaren amildegirik zorrotzenean, izuaren gailurrik sakonenean. Eta bakardadean, ahanzturan eta izuan barrena egiten dut aurrera egunez egun. Giltza ezkututik gero eta gertuago sentitzen naiz. Egun batean jakingo duzue nire berri.